



▶ Giza Eskubideak / Derechos Humanos / Human Rights  
Tel. +34 943 481 975 | [zinema\\_gizaeskubideak@donostia.eus](mailto:zinema_gizaeskubideak@donostia.eus)

▶ Zine Unitatea / Unidad de Cine / Film Unit  
Tel. +34 943 481 157 | [cinema\\_cinema@donostia.eus](mailto:cinema_cinema@donostia.eus)

[www.zinemaetagizaeskubideak.eus](http://www.zinemaetagizaeskubideak.eus) | [www.cineyderechoshumanos.eus](http://www.cineyderechoshumanos.eus)

## MONTXO ARMENDARIZek ETA PUY ORIAk JASOKO DUTE 2021eko GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIAREN SARIA

**Montxo Armendariz** zuzendariak eta **Puy Oria** ekoizleak jasoko dute **Donostiako Giza Eskubideen 18. Zinemaldiaren Saria**. Sariaren entrega **ostiralean, apirilak 30, 18:00etan Victoria Eugenia Antzokian** ospatuko den bukaera emanaldian izango da.

### MONTXO ARMENDARIZ / PUY ORIA

Montxo Armendariz eta Puy Oria funtsezko figurak dira Espainian azken hamarkadetan egin den zinemaren barruan; izan ere, zinema horren historia hurbileko obra klasiko eta ezinbesteko batzuen egileak dira.

Montxo Armendarizek honako film hauek zuzendu ditu, besteak beste: **Tasio** (1984), **27 horas** (1986), **Las cartas de Alou** (1990), **Historias del Kronen** (1995) eta **Secretos del corazón** (1997).

Puy Oriak produkzio-zereginak bete ditu honako film hauetan, besteak beste: **¡Dispara!** (1993), **La pasión turca** (1994), **La ley de la frontera** (1996) eta **Profundo carmesí** (1996). Hori guztia, Armendarizekin batera Oria Films sortu aurretik. Halaber, ikus-entzunezkoen produkzioari buruzko eskolak eman ditu hainbat zentrotan, eta hainbat kargu bete ditu zenbait elkartetan. Adibidez, PIAF (Productoras Independientes Audiovisuales Federadas) elkarteko presidentea izan da azken urteetan.

1999. urtean, Oria Films sortu zuten, eta Armendarizek zuzendutako honako film hauek produzitu ziren bertan: **Silencio roto** (2001), **Escenario móvil** (2004), **Obaba** (2005) eta **No tengas miedo** (2011). Film horiekin, agerian utzi zuten gai sozial mota oro jorrazeko asmoa, memoria historikoarekiko konpromisoa eta beren garaiko eta inguruneke errealitateak kontatzeko interesa.

Hori guztia azken hamarkadetan produzitu dituzten beste obra batzuetan ere hauteman daiteke, hala nola honako hauetan: **La guerrilla de la memoria** (Javier Corcuera, 2002), **El inmortal** (Mercedes Moncada Rodríguez, 2005) eta **De tu ventana a la mía** (Paula Ortiz, 2011).

Saria **Aitor Mendizabal** artista euskaldunaren biktima guztien oroimenezko **Oroimena – Memoria** izeneko monolitoaren erreplika da.



- ▶ Giza Eskubideak / Derechos Humanos / Human Rights  
Tel. +34 943 481 975 | [zinema\\_gizaeskubideak@donostia.eus](mailto:zinema_gizaeskubideak@donostia.eus)
- ▶ Zine Unitatea / Unidad de Cine / Film Unit  
Tel. +34 943 481 157 | [cinema\\_cinema@donostia.eus](mailto:cinema_cinema@donostia.eus)

[www.zinemaetagizaeskubideak.eus](http://www.zinemaetagizaeskubideak.eus) | [www.cineyderechoshumanos.eus](http://www.cineyderechoshumanos.eus)

## GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIAREN SARIA

2007an eman zen lehen aldiz Giza Eskubideen Zinemaldia Saria, zinean dihardutenei giza eskubideen alde egin duten lana eta hartua duten konpromisoa aintzatesten duena. Urte hartan **Pilar Bardem** antzezleari eman zitzaion saria, giza eskubideak, demokrazia eta bakea defendatzen egin duen ibilbideagatik, eta kausa eta kolektibo kalteberenen alde erakutsi izan duen elkartasunagatik eta egin izan duen lanagatik.

Harrezkero, hauek izan dira saritutakoak: **Elías Querejeta** produktorea, **José Luis Borau** zinegilea, **Goran Paskaljević** zuzendari serbiarra, **Kim Longinotto** dokumental egile britainiarra, **Iciar Bollain** aktore eta zuzendari madrildarra, **Patricio Guzmán** dokumental egilea, **Robert Guédiguian** zuzendari frantziarra, **Lourdes Portillo** zuzendari chicana, **Tony Gatlif** zinegilea eta musikaria, **Deepa Mehta** zuzendari indiarra eta **Laurent Cantet** eta **Annemarie Jacier** zinegileak. Haiek guztiak aspalditik ari dira zinearen alorrean giza eskubideak defendatzen.